Antsoain BIM Ansoáin
Antsoaingo Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información Municipal de Ansoáin
2020 Abendua - Diciembre • nº 21.zka



## "ANTSOAIN KONPROMISOA" KANPAINA. DESKONTUA DAKARTEN 8.000 KONPROMISO GURE MERKATARITZAN

Antsoaingo Udalak **"ANTSOAIN KONPROMISOA"** izeneko kanpaina jarri du abian, herriko merkataritza sarea sustatzeko eta bultzatzeko. Hurbiltasunezko merkataritza zaindu eta indartu beharrak eraginda antolatu da ekimena, herritarrengan gogoeta eragiten aldera, herriko merkataritzaren alde egin dezaten; azken finean, KONPROMISOA har dezaten gure herriko atal oso garrantzitsu batekin.

Horrela, **abenduaren 1etik 21era**, Antsoainen erroldatuta dagoen 18 urtetik gorako jende guztiak 5€-ko deskontua gozatzeko aukera izanen du, gutxienez 15€-ko erosketak egiten baditu, betiere erosketa hori kanpainari atxiki zaizkion herriko saltokietan egiten badute. Aski izanen da NANa aurkeztea eta gutxieneko erosketa hori egitea (txartel bat pertsona bakoitzeko).

www.compromisoansoain.es webean ageri dira bai Kanpainari buruzko argibide guztiak, bai saltoki atxikien zerrenda osoa. Establezimendu bakoitzak, gainera, ezaugarri bat jarriko du agerian, kanpainan parte hartzen ari dela erakusteko.

Antsoaingo Udalak, guztira, 5 euroko 8.000 deskontu jarri ditu abian, gure herrian beste horrenbeste bizilagun baitira adinez nagusiak. Guztira, beraz, 40.000 euro gure merkataritza-sarea indartzeko.

Jarraitzen du...

## CAMPAÑA "COMPROMISO ANSOÁIN". 8.000 COMPROMISOS CON DESCUENTO EN NUESTRO COMERCIO

El Ayuntamiento de Ansoáin ha puesto en marcha la campaña **"COMPROMISO ANSOÁIN"**, para el fomento y dinamización del tejido comercial de la localidad. Esta iniciativa nace desde la necesidad de cuidar y fortalecer el comercio de cercanía y con la principal finalidad de generar en la ciudadanía una reflexión y una apuesta por nuestro comercio local, un COMPROMISO con una parte muy importante de nuestro pueblo.

De esta manera, **del 1 al 21 de diciembre** toda persona mayor de 18 años empadronada en Ansoáin va a tener la posibilidad de beneficiarse de un descuento de 5€ en compras con un importe mínimo de 15€, que se realicen en los comercios locales adheridos a la campaña. Bastará con presentar el DNI y realizar esa compra mínima (Un bono por persona).

Toda la información de la campaña, así como el listado de comercios adheridos, se puede consultar en www.compromisoansoain.es. Además, cada establecimiento dispondrá de un distintivo que identifique su participación.

En total, el Ayuntamiento de Ansoáin pone en circulación 8.000 descuentos de 5 euros, que se corresponden con nuestra población mayor de edad y que suman un total de 40.000 euros destinados a fortalecer nuestro tejido comercial.

Continúa....

**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**
(Hurrengo aldizkaria: 2021ko otsaila – Próximo BIM: febrero 2021)

Udalean produktuaren hurbiltasunaren alde egin nahi dugu, denda txikiek egiten duten lanaren balioa nabarmenduta. Tokiko saltokien alde egiten badugu eta sektore hain garrantzitsu hori sendotzen badugu, Antsoain biziagoaren alde eginen dugu.

Hori dela eta, hona hemen erronka hau Antsoaingo herritar guztientzat. 8.000 deskontu. 8.000 konpromiso. Gure merkataritza txikiak zure beharra du. Egizu bat **“ANTSOAIN KONPROMISOA”** kanpainarekin.

Desde el Ayuntamiento apostamos por la cercanía del producto y queremos siempre poner en valor el trabajo que realiza el establecimiento pequeño. Apostar por los comercios locales, fortaleciendo este sector tan importante, es apostar por un Ansoáin vivo.

Por eso, lanzamos este reto para toda la ciudadanía antsoaindarra. 8.000 descuentos, 8.000 compromisos. Nuestro pequeño comercio cuenta contigo. Súmate al **“COMPROMISO ANSOÁIN”**.

## ANTSOAINEN ZERGA-TASA BERBERAK MANTENDUKO DIRA 2021ERAKO, UDALAREN OSOKO BILKURAK ERABAKITA

Antsoaingo Udalak egungo zerga-tasak eta prezio publikoak mantenduko ditu 2021ean, urriaren 28an egindako osoko bilkuran halaxe onetsita.

Era berean, honako aldaketa hauek onetsi ziren hiru ordenantza fiskal hauetan:
- Akats tipografiko bat zuzendu da 19. ordenantzan, hau da, Eskola Musikan izena emateko prezio publikoak arautzen dituen hartan.
- Aldaketa ere materialak lagatzea eta zerbitzuak ematea arautzen dituen 20. ordenantzan. Zehazki, baldintza bat ezarri da, hots, jarduerak irabazi-asmorik ez izatea.
- Bi epigrafe berri sartu dira 5. ordenantzan, hau da, baimenak emateko, eta ingurumena babestearen eta jarduera kaltegabeen alorrean kontrolerako jarduera administratiboak egiteko tasak arautzen dituen hartan. Zehazki, tasa bat ezarri da irekiera eta jarduera lizentziak bideratzeagatik, baldin eta administrazio-tramiteaz gain, kanpoaldeko ingurumen-txostena behar badute. Txostenaren kostua ez zuen orain arte eskatzaileak ordaindu behar.

## EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN APRUEBA MANTENER LOS MISMOS TIPOS IMPOSITIVOS PARA 2021

El pleno del Ayuntamiento de Ansoáin aprobó en su sesión ordinaria del miércoles 28 de octubre, mantener para 2021 los mismos tipos impositivos y precios públicos actuales.

De la misma manera, se aprobaron las siguientes modificaciones que afectan a tres ordenanzas fiscales:
- La corrección de un error tipográfico en la Ordenanza número 19 reguladora de precios públicos por inscripción en la Escuela de Música.
- Una modificación de la Ordenanza número 20, reguladora de la cesión de materiales y prestación de servicios, por la que se introduce como condición para ello que no haya ánimo de lucro en la actividad para la que se solicita.
- La incorporación de dos nuevos epígrafes en la ordenanza número 5, reguladora de tasas por otorgamiento de autorizaciones y realización de actividades administrativas de control en materia de protección ambiental y actividades inocuas, por los que se introduce una tasa por tramitación de licencias de apertura y de actividad que requieran, además del propio trámite administrativo, un informe medioambiental externo, cuyo coste no se repercutía hasta ahora a la persona solicitante.

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016



### HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA
Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

### INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA
Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

## ABIAN DA DIRULAGUNTZAK BANATZEKO DEIALDI PUBLIKOA ANTSOAINGO TXIKIZKAKO JARDUERARENTZAT, 60.000 EUROZ HORNITUA

Antsoaingo Udalak deialdi publiko bat jarri du abian, dirulaguntzak banakako ebaluazioaren bidez emateko, Antsoaingo txikizkako jarduerarentzat, osasun krisiak gure udalerrian eragindako kalte ekonomikoak murrizten laguntzeko.

Guztira, 60.000 euro banatu nahi dira, eta horretarako, osoko bilkurak onetsitako aldaketa bat egin da aurrekontuetan. Dirutza, zehazki, enpresa, lanbide edo arte arloko jardueretan diharduten negozioen artean banatuko da, baldin eta Antsoaingo JAZen alta emanda bazeuden alarma-egoera ezarri zen egunean, hau da, 2020ko martxoaren 14an, betiere deialdiaren oinarrietan ageri diren baldintzak betetzen badituzte.

Bi dirulaguntza mota daude deialdian: batetik, fakturazioa murrizteagatik, eta bestetik, jarduera bere osoan bertan behera uzteagatik (txikizkako negozioak eta profesionalak, lan araubide autonomoan ari direnak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eraginpekoak). Onuradun bakoitzak gehienez 300 euro jasoko ditu guztira, diruz lagundu daitezkeen kontzeptu guztiengatik, baldin eta fakturazioa murriztu bazaio, eta 450 euro, berriz, jarduera bere osoan bertan behera utzi badu.

Eskaerak aurkezteko epea oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasi (azaroak 9) eta azaroaren 30ean bukatuko da.

Ekimenaren bidez, Udalak gure herriko sektore garrantzitsu bati lagundu nahi dio, bere aukeren barruan; autonomoei, hain zuzen. Izan ere, bizi dugun egoeraren ondorioek sektorea bereziki kaltetu dute.

## LANZADA LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LA ACTIVIDAD MINORISTA DE ANSOÁIN, DOTADA CON 60.000 EUROS

El Ayuntamiento de Ansoáin ha puesto en marcha una convocatoria pública de subvenciones, en régimen de evaluación individualizada, destinadas a la actividad minorista de Ansoáin, con el objetivo de contribuir a minimizar los efectos económicos negativos de esta crisis sanitaria en nuestro municipio.

Esta ayuda, que pretende repartir un total de 60.000 euros habilitados a través de una modificación presupuestaria aprobada en pleno, va dirigida a negocios que ejerzan actividades empresariales, profesionales o artísticas, y que estén dados de alta en el IAE de Ansoáin en la fecha de la Declaración del Estado de Alarma (14 de marzo de 2020) y cumplan una serie de requisitos que se detallaban en las bases de la convocatoria.

La convocatoria cuenta con dos tipos de subvención, por reducción de facturación o por suspensión total de la actividad (negocios minoristas y profesionales en régimen laboral autónomo afectados por el RD 463/2020, de 14 de marzo). Las cuantías máximas que podrá recibir cada beneficiario o beneficiaria por todos los conceptos subvencionables es de 300 euros en total en el caso de reducción de facturación y 450 euros en el supuesto de suspensión total de la actividad.

El plazo de presentación de solicitudes comenzó el día siguiente a la publicación de las bases en el Boletín Oficial de Navarra, el pasado 9 de noviembre, y terminó el día 30 del mismo mes.

Con esta iniciativa, el ayuntamiento pretende colaborar, dentro de sus posibilidades, con un sector importante de nuestro pueblo como el de las y los autónomos, que se está viendo especialmente afectado por las consecuencias de la situación que nos está tocando vivir.



## DIAGNOSTIKO PARTE-HARTZAILEA, BALIABIDE BERRI GEHIAGO SORTZEKO ADINEKOENTZAT, MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDENENTZAT ETA FAMILIA-ATSEDENERAKO



Datozen asteetan, **azterketa eta diagnostiko** parte-hartzaile bat eginen da, mendeko diren pertsonen, adinekoen eta haien familien premia larrienak ezagutzeko. Prozesu hori zerbitzu berriak emateko asmoarekin egiten ari da, egoera horretan daudenen eta haien familien egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko. Udala lanean ari da Osasun Zentroarekin, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Osasun Mentaleko Zentroarekin, orain arte emandako zerbitzuak multzokatzeko eta zerbitzu berriak sortzeko, besteak beste, bizi-kalitatea hobetzeko, mendekotasuna prebenitzeko, familiari atsedena errazteko edo autonomia pertsonala sustatzeko.

## DIAGNÓSTICO PARTICIPATIVO PARA AVANZAR EN LA GENERACIÓN DE NUEVOS RECURSOS PARA LAS PERSONAS MAYORES, DEPENDIENTES Y DE RESPIRO FAMILIAR

En las próximas semanas se va a realizar un **análisis y diagnóstico** participativo para conocer las necesidades más acuciantes de la población dependiente, mayor y sus familias. Este proceso se está realizando con la idea de prestar nuevos servicios que pueda atender necesidades actuales y futuras de las personas que se encuentran en esta situación y sus familias. El Ayuntamiento junto con el Centro de Salud, Mancomunidad de Servicios Sociales y Centro de Salud Mental vienen trabajando para agrupar servicios hasta ahora prestados y generar nuevos, con el fin de mejorar la calidad de vida, prevenir la dependencia, facilitar un respiro familiar o promover la autonomía personal entre otras cuestiones.




**Antsoaingo Udalaren Musika Eskolak Eguberri Zoriontsua eta 2021 Urte Berri Zoriontsua opa dizue.** Aurten, Eguberri ezohikoak izan arren, musika giroan eta alaitasunez pasatzea espero dugu. Gure oparirik onena ez du ekarriko Olentzerok, ezta Errege Magoek ere, opari onena egunero baitugu Eskolan: gure ikasle eta irakasleen gogo bizia eta lana da, gogo izugarri handiz ari baitira egoera berrira egokitzen. Zer gehiago eska daiteke?

**Desde la Escuela Municipal de Música de Ansoáin os deseamos una muy Feliz Navidad y un Feliz Año nuevo 2021.** Esperamos que, aunque estas sean unas fiestas atípicas, las paséis con música y alegría. Nuestro mejor regalo no lo van a traer Olentzero ni los Reyes Magos, porque ya lo tenemos cada día en la Escuela: es el entusiasmo y trabajo de nuestro alumnado y profesorado, que se adaptan a las nuevas circunstancias con todas las ganas del mundo. ¿Qué más se puede pedir?




Deskargatu Antsoaingo Udalaren doako aplikazioa. Bertan udaleko eta kultur egitarauaren inguruko informazioa jasoko duzu.
**APP Store eta Play Store-n eskuragarri**

Descárga en tu móvil la aplicación gratuita del Ayuntamiento de Ansoáin. Recibirás información municipal y sobre la programación cultural.
**Disponible en APP Store y Play Store**

## HARROBI GAZTELEKUA

Kaixo Antsoain!

Harrobin, Antsoaingo gazte guztiei esparru ezberdin bat eskaintzen jarraitzen dugu, beti ere beharrezkoak diren osasun neurri guztiak betez.

Aipatu nahi dugu berdintasun tailerrak hasi ditugula Iñaki Ochoa de Olzako D.B.H.ko 3. maila osoarekin. Gizarte parekide baten helburuarekin, gai horiei buruzko hausnarketak oso garrantzitsuak direlako pandemia garaietan ere bai.

Azaroaren 25aren harira, Berdintasun zerbitzuarekin eta Galkidea antzerki konpainiarekin batera, genero biolentziaren arrazoiak lantzen dituen antzezlan bat antolatu genuen Harrobin.

Azkenik, ostiralero, hainbat ekimen antolatzen hasi gara, hala nola pelikulak, bingoa eta mahai jokoak. Gerturatzera eta parte hartzera animatzen zaituztegu!

Eguberri on guztioi!




## CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

Kaixo Antsoain!

En Harrobi seguimos trabajando para poder ofreceros un espacio diferente a todos y todas las jóvenes del pueblo, cumpliendo siempre con todas las medidas sanitarias necesarias.

Queremos destacar que ya hemos empezado con los talleres de igualdad en todas las clases de 3º de la E.S.O. de Iñaki Ochoa de Olza. Porque en épocas de pandemia, también es importante seguir reflexionando sobre estos temas y trabajar para conseguir una sociedad más justa.

Además, con motivo del 25 de Noviembre, junto con el servicio de Igualdad y la compañía de teatro Galkidea, realizamos una obra en Harrobi que abordaba las causas de la violencia de género.

Por último, todos los viernes se organizan diferentes actividades como películas, Bingo o diferentes juegos de mesa. ¡Os animamos a acercaros y participar!

¡Feliz navidad a todos y todas!

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain

VILLACORTA
ZAPATOS Y COMPLEMENTOS
c/ Villafranca, 4
TXANTREA
desde 1970

M'ENAMORAO!
LA ROPA DE VILLACORTA
Avda. Villava, 17 - ANTSOAIN
desde 22-10-20

REGALOS DE NAVIDAD
GABONETAKO OPARIAK

ZAPATOS Y BOTAS • ZAPATILLAS DE CASA
ROPA QUE TE ENAMORARÁ
BOLSOS • CINTURONES
BUFANDAS • PARAGUAS
AROMATERAPIA
Y MÁS...

Taller profesional de REPARACIÓN DE CALZADO

ENTREGA A DOMICILIO DE REGALOS DE NAVIDAD

Búscanos en la redes sociales: villacortazapatosyropa
Tel. 674 356 811 / 659 021 789

## BERDINTASUN ZERBITZUA

Azaroaren 25 honetan ere, Antsoaingo Udalak berriz ere sustatu du “Toki Entitateak, emakumeenganako indarkeriaren aurka” izeneko kanpaina, Emakumeenganako **indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira**. Hori dela eta, hainbat jarduera eta ekitaldi antolatu ditu herrian jendea sentsibilizatzeko. Kanpaina Nafarroako beste 25 toki entitaterekin batera abiarazi da, manifestu eta irudi berdina erabilita.

Aurtengo kanpainak nabarmendu du oso garrantzitsua dela haustea emakumeak indarkeriaren kontra babesgabeak direlako irudi errukiorra, eta ikuspegi paternalista hori ere aldatzea. Hau da, bestelako irudia eman nahi da indarkeria pairatzen duten emakumeez, erabakitzeko eta jarduteko gaitasuna duten emakumeak baitira; ez pasiboak, baizik eta aktiboak indarkeria matxistei aurre egiteko; azken finean, “emakumeak ahaldundu egiten dira bai salatzeko, bai aski dela esateko, eta eraldaketarako dituzten mekanismo eta gaitasunak jartzen dituzte abian indarkeriarik gabeko bizitza baterantz jotzeko: **biktima izatetik bizirik ateratzera eta bizirik ateratzetik eraldatzaile izatera”**. Manifestuak, halaber, mugimendu feminista aipatu nahi izan du era berezi batez, mugimenduak emakumeen indarkeriari aurre egiteko darabiltzan aldarrikapenak nabarmenduta, eta era berean, mobilizaziorako eta erantzun kolektiborako duen gaitasuna azpimarratuta.

Manifestuak, era berean, berdintasunaren aldeko politika publikoen garrantzia nabarmendu nahi izan du, sentsibilizazioan, indarkeriaren prebentzioan eta biziraun duten emakumeen arreta integralean ekintzak garatuta, betiere esku-hartzearen xedetzat ahalduntzea hartuta. Hain zuzen, ahalduntzea indarkeria matxistak prebenitzeko tresna dela kontuan hartuta, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu zituen azaroan, beste zerbitzu batzuekin elkarlanean; Harrobirekin, adibidez.




## SERVICIO IGUALDAD

Este 25 de noviembre, **Día internacional contra la violencia hacia las mujeres**, el Ayuntamiento de Ansoáin ha vuelto a promover la campaña “Entidades Locales contra la violencia hacia las mujeres”, con una serie de actividades y acciones de sensibilización en el municipio. Esta campaña se ha lanzado conjuntamente con otras 25 Entidades Locales de Navarra, realizando un manifiesto y una imagen común.

La campaña de este año ha querido destacar la importancia de romper con la imagen compasiva de mujeres indefensas frente a la violencia, y cambiar este enfoque paternalista. Presentar a las mujeres que sufren violencia como sujetos con capacidad de decisión y actuación, no pasivas sino activas frente a las violencias machistas, “mujeres que se empoderan para denunciar y decir basta, poniendo en marcha sus mecanismos y habilidades para la transformación hacia una vida libre de violencia: **de víctimas a supervivientes y de supervivientes a transformadoras”**. Este manifiesto también hace una mención especial al movimiento feminista, destacando sus reivindicaciones frente a las violencias contra las mujeres, su capacidad de movilización y su respuesta colectiva.

También subraya la importancia de las políticas públicas de igualdad, desarrollado acciones en materia de sensibilización, prevención de la violencia y atención integral a las mujeres supervivientes, con el empoderamiento como horizonte de la intervención. Teniendo en cuenta el empoderamiento como herramienta para la prevención de violencias machistas, el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento programó una serie de actividades en noviembre, en colaboración con otros servicios, como Harrobi.

igualdadberdintasuna

## NEGU HONETAN... IRAKURRI BERDINTASUNA

Udaleko Berdintasun Zerbitzuak hainbat liburu utzi dizkio Antsoaingo udal liburutegiari genero berdintasunaz edo desberdintasunaz gogoeta egiteko eta gaia lantzeko: liburu hezkideak; indarkeria matxistei aurrea hartzeko eta haiei buruz hausnartzeko liburuak; genero rolak eta estereotipoak hausteko liburuak; askotariko identitateez kontzientziatzeko liburuak; feminismoen jatorri eta kontzeptualizazioari buruzko liburuak, eta abar.

Hainbat egileren liburuak ditugu, hala nola Angela Davis, Briggite Vasallo, Irantzu Varela, Kattalin Miner, Amaia Perez Orozco eta beste askoz ere gehiagorenak. Guztira, 100 baino gehiago adin guztientzat. Guztiak era laster iritsiko dira gure liburutegira, eta atal berezi bat sortuko da berdintasuna lantzeko. Zatoz eta ezagutu!




## ESTE INVIERNO... LEE IGUALDAD

El Servicio de Igualdad del Ayuntamiento ha cedido a la biblioteca municipal de Ansoáin una serie de libros para trabajar y reflexionar sobre la igualdad o desigualdad de género: libros coeducativos; libros para prevenir y reflexionar sobre las violencias machistas; libros para romper roles y estereotipos de género; libros para concienciar sobre identidades diversas, libros sobre los orígenes y la conceptualización de los feminismos, y un largo etcétera

Tendremos ejemplares de diferentes autoras, como Angela Davis, Briggite Vasallo, Irantzu Varela, Kattalin Miner, Amaia Perez Orozco...y muchísimas más. Más de 100 títulos diferentes para todas las edades llegaran pronto a nuestra biblioteca, creando una sección especial para trabajar la igualdad. ¡Acércate a conocerla!




## EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA

Hilabete honetan, Antsoaingo Udalak eskaintzen digun eremu hau aprobetxatu nahi dugu Ezkabako hezkuntza-komunitate osoa eta udala eta bere langileak zoriontzeko, joan den martxoaz geroztik bizi dugun egoera ez-ohiko honetan izan duten jarrera eredugarriagatik.

Zalantza asko genituen ikasturte berri honen hasieraren inguruan, eta bi hilabete igaro ondoren esan dezakegu, ahal den neurrian, hasiera batean espero genuena baino hobeto joan dela. Hau ez litzateke posible izango familien eta txikienen laguntzarik gabe, soberan jakin baitute ereduzko moduan erantzuten. Ezin dugu idazki hau amaitu ikastetxeko irakasle guztiak eta gainerako langileak eskertu barik, gure ikasleek arretarik onena jaso dezaten egiten ari diren lan itzelagatik. Horregatik guztiagatik, eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

## COLEGIO PÚBLICO EZKABA

Este mes queremos aprovechar este espacio que nos concede el Ayuntamiento de Ansoáin para felicitar a toda la comunidad educativa de Ezkaba y al propio ayuntamiento y sus trabajadores, por su ejemplar comportamiento en esta anómala situación en la cual estamos inmersos desde el pasado mes de marzo.

Muchas eran las dudas que teníamos en relación a cómo iba a ser el inicio de este nuevo curso y después de dos meses podemos decir que, dentro de lo que cabe, ha ido mejor de lo que en principio esperábamos. Esto no hubiera sido posible sin la colaboración de las familias y de los más txikis, que sobradamente han sabido responder de forma modélica, a pesar de todo. No podemos finalizar esta reseña sin dar las gracias de corazón a todo el profesorado y demás trabajadores del centro, que se están dejando la piel para que nuestro alumnado reciba la mejor atención posible. Por todo ello, eskerrik asko, bihotz-bihotzez!



## ANTSOAINGO UDALAREN KIROL INSTALAZIOEN I. PLAN ZUZENTZAILEA AURKEZTU DA

Antsoaingo Udalak Antsoaingo udal kirol instalazioen lehen Plazan Zuzentzailea aurkeztu du. Juan Carlos Martínez udaleko kirol teknikaria eta Jesús Arraiza Idakirolak udal enpresa publikoko kudeatzailea izan dira koordinatzaileak.



Andrés Martínez Tejada eta Miguel Ayape Beriain arkitektoak arduratu dira instalazioen azterketa teknikoa egiteaz. Azterlan hori eranskin gisa dago planean sartua.



### ZER DA PLAN ZUZENTZAILEA?

Plan Zuzentzailea agiri bat da eta etorkizunean instalazio baten gainean egin daitezkeen jarduketak biltzen ditu. Arlo askotako teknikariek instalazioan aurrez egindako azterlanak ditu oinarri, eta instalazioaren gainean esku hartzeko faseak koordinatzea du xede. Faseak kronologikoki antolatzen dira eta, ahal den neurrian, dirutan zenbat izan daitezkeen zehazten da, lanerako tresna erabilgarria izan dadin.

### ZERTARAKO BALIO DU PLAN ZUZENTZAILEAK?

Plan Zuzentzailearen bidez, “bide-orri” bat daukagu eskura instalazio batean edo multzo batean datozen urteetan zer jarduketa egin daitezkeen biltzeko. Oraingo honetan, Antsoaingo udal kiroldegiak edo kirol instalazioak dira. Jarduketa batzuk nahitaez egin behar dira, arau berrietara egokitzeko. Beste batzuk, berriz, proposamenak dira, eta eskura dagoen diruaren arabera edo unean uneko borondate politikoaren arabera gauzatuko dira edo ez.

### ZER INSTALAZIO DAUDE PLAN HONETAN SARTUTA?

Hona hemen aurkeztu den Plan Zuzentzailearen baitan dauden instalazioak: udako igerilekua, igerileku estalia eta berdeguneak, instalazio estaliak (gune hidrotermala, pilotalekua, kiroldegia, gimnasioa, aretoak, aldagelak...), futbol-zelaia, eta Ezkaba Ikastetxe Publikoko kirolgune estalia.

### ZER BILTZEN DU PLANAK?

Hona hemen planean bilduta dauden puntu nagusiak:

1.- Arestian aipaturiko instalazioen azterlan bat egungo kontserbazio egoera baloratzeko, egungo araudira

## PRESENTADO EL I PLAN DIRECTOR DE INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES DE ANSOÁIN

El Ayuntamiento de Ansoáin ha presentado el primer Plan Director de Instalaciones deportivas municipales de Ansoáin, cuya elaboración ha sido coordinada por el técnico de Deportes del Ayuntamiento, Juan Carlos Martínez y el gerente de la empresa pública municipal Idakirolak, Jesús Arraiza.

Los arquitectos Andrés Martínez Tejada y Miguel Ayape Beriain se han encargado de realizar el estudio técnico de las instalaciones, que forma parte del plan como documento anexo al mismo.

### QUÉ ES UN PLAN DIRECTOR

Un plan Director es un documento que recoge las posibles actuaciones futuras a realizar sobre una instalación. Se basa en estudios previos de la misma realizados por un equipo técnico multidisciplinar y tiene el objetivo de coordinar las distintas fases de intervención sobre esa instalación. Estas fases se ordenan cronológicamente y se cuantifican económicamente, en la medida de lo posible, para que sea una herramienta útil de trabajo.

### PARA QUÉ SIRVE UN PLAN DIRECTOR

Con el Plan Director se consigue tener una “hoja de ruta” de las posibles actuaciones a llevar a cabo en los próximos años en una instalación o conjunto de instalaciones, en este caso, las instalaciones deportivas municipales de Ansoáin. Algunas son de obligado cumplimiento, por tratarse de adaptaciones a nuevas normativas y otras son propuestas que pueden materializarse o no en función de las posibilidades económicas o de la voluntad política existente en cada momento.

### CUÁLES SON LAS INSTALACIONES INCLUIDAS EN ESTE PLAN

El Plan Director presentado afecta a la piscina de verano, piscina cubierta y zonas verdes, incluye también las instalaciones cubiertas (Centro hidrotermal, frontón, polideportivo, gimnasio, salas, vestuarios...), el campo de fútbol y el espacio deportivo cubierto del Colegio Público Ezkaba.

### QUÉ RECOGE EL PLAN

Los principales puntos recogidos en el plan son:

1.- Un análisis de las instalaciones antes señaladas para valorar su estado actual de conservación, su ade-

noraino egokituta dauden ikusteko, eta ez badaude, zer-nolako lanak egin behar diren araudietara egokitzeko. Era berean, egun kirol bakoitzerako diren erabilera aukerak, eta instalazioek zer-nolako ezaugarri teknikoak bildu behar dituzten kirol horiek egiteko, eta zer lan proposatu diren instalazioak hobetu edo handitzeko.

2.- Proposatu diren inbertsioen laburpena, kostuak zenbat izan daitezkeen zehaztuta, bai kontserbazioan, bai mantentze-lanetan; halaber, irisgarritasun arloko araudira egokitzeko lanak, igerilekuei buruzko araudira egokitzeko lanak, bai eta hobekuntza eta handitze-lan posibleak ere.

3.- Inbertsioak planifikatzeko proposamen bat, jarduketa hamar urtean egiteko.

4.- Alternatiben gaineko azterlan bat, udako igerilekuak eta igerileku estaliak okupatutako lurzatian diren instalazioak berrantolatu eta modernizatzeko.

### PLANAREN ONDORIOAK

Planaren ondorio nagusia da egungo instalazioek, oro har, kontserbazio eta mantentze egoera ona dutela, eta horrez gain, zehaztu dira instalazioak egungo araudietara egokitzeko edo mantentzeko behar diren lanak; instalazioak hainbat alderditan hobetu, handitu edo egokitzeko lanak ere proposatu dira, eta hori guztia zenbat litzatekeen dirutan, eta denbora-plangintza ere zehaztu da.

cuación a la normativa actual vigente, las actuaciones necesarias para esa adecuación a normativas de obligado cumplimiento, las posibilidades de uso actual para las diferentes actividades deportivas, las características técnicas que deben reunir para esas prácticas deportivas y las actuaciones propuestas para la mejora o ampliación de esas instalaciones.

2.- Un resumen de inversiones propuestas y costos estimados en aspectos como conservación y mantenimiento, adecuación a normativa de accesibilidad y específica de piscinas así como posibles mejoras y ampliaciones.

3.- Una propuesta de planificación de inversiones en un periodo estimado de actuación de diez años.

4.- Un estudio de alternativas para la reordenación y modernización de las instalaciones existentes en la parcela ocupada por la piscina de verano y cubierta.

### CONCLUSIONES DEL PLAN

Además de detallar qué actuaciones son necesarias para el mantenimiento o adecuación de las instalaciones a normativas actuales, proponer actuaciones de mejora, ampliación o adaptación de las mismas en diferentes aspectos, cuantificar económicamente esas actuaciones y proponer una planificación de todo ello en el tiempo, la principal conclusión del plan es que las instalaciones actuales tienen un buen estado general de conservación y mantenimiento.

## EUSKARA ZERBITZUA

Garai batean Euskara Zerbitzuak maiatzean antolatzen zuen kultura zikloa azaroan egin izan da azkeneko urteotan. Ezagutza eta kultura bultzatzea du helburu, eta Azaroa Kultura Aroa izenaz plazaratu izan dugu. Aurten, osasun-krisiaren eraginez desberdina izan bada ere, espero baino jarduera gehiago egin ahal izan ditugu; eta pozik gaude, ez baitugu ahaztu behar zein neurriko garrantzia duen euskara eskolaz eta lanaz kanpo erabiltzeak: beharrezkoa da bizitzako esparru guztietan gustura bizitzeko.

Horrekin batera, Nafarroako euskara zerbitzuok Era guraso eskolak antolatu eta www.era.eus atarian eskaini ditugu. Askotan kontatu izan dizuegun bezala, Erak baliabide asko eskaintzen ditu, 0-12 urteko umeentzat eta haien familientzat. Batetik, haurren aisialdiarekin zuzenean loturikoak (hamaika eratako jarduerak, eskolaz kanpoko jarduerak, on line baliabideak, musika, audio-ipuinak, etab.) eta, bestetik, gurasoei bideratutako aholkuak eta informazioa. Euskaraz jakinda edo jakin gabe ere, gurasoek asko egin dezakete seme-alaben hizkuntza-garapenaren alde, eta Erak bide horretan lagundu nahi dizue, esan bezala, asko egin dezakezuelako eta bereziki garrantzitsua delako eskolaz kanpo ere euskaraz bizitzeko aukerak ematea.

## SERVICIO DE EUSKERA

El ciclo cultural que antiguamente el Servicio de Euskera organizaba en mayo se trasladó a noviembre hace unos años, bajo el nombre Noviembre Cultura. Su objetivo es fomentar el conocimiento y la cultura, y aunque este año ha sido diferente debido a la crisis sanitaria, hemos podido realizar más actividades de las esperadas; cosa que nos alegra mucho, puesto que no debemos olvidar la importancia que tiene el uso del euskera fuera de la escuela y del trabajo: es necesario para que vivamos a gusto en todos los ámbitos de la vida.

Por otro lado, los servicios de euskera de Navarra hemos organizado formación de madres y padres a través de Era, ofreciendo las diferentes sesiones en www.era.eus. Hemos contado ya en varias ocasiones, que Era ofrece recursos para 0-12 años y sus familias: los relacionados directamente con el tiempo libre infantil (actividades, extraescolares, recursos on line, música, audiocuentos, etc.) y, por otro lado, orientación e información dirigida sus padres y madres. Sabiendo o sin saber euskera, podemos favorecer el proceso de crecimiento lingüístico de los y las niñas, de manera que Era os ayuda en esa dirección. Como decíamos, se puede hacer mucho y es importante darles la oportunidad de vivir en euskera también fuera de la escuela.

## NAZIO BATUETAKO GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK. 12. HELBURUA. KONTSUMO ARDURATSUA

Kontsumo arduratsuaren aldeko mezuak ikusten ditugu maiz, han eta hemen; **Eguberrietan, batez ere.**

Kontsumo hitza, etimologiari begira, "consumere" latinezko kontzeptutik heldu da. Hitzez hitz, "dena hartzea" esan nahi du, hau da, zerbait erabili, gastatu edo baliatzea, den-dena bukatu, amaitu edo iraungi arte. Beharbada, kontzeptu hori ulertzean, argiago ikusiko dugu zer-nolako lotura duen kontsumismoak Lurreko natur baliabideak agortzearekin. Hori dela eta, Eguberrietarako gure kontsumo aukerak ez luke jolasa izan behar.

Era arduratsuan kontsumitzea oso erraza da, produktu ekologikoak, artisautzazkoak, hurbiltasunekoak edota bidezko merkataritzakoak erostea aukeratzea bezain erraza baita. Hau da, produktuak aleka, soltean edo ontziratu gabe erostea, eta ez erostea birziklatzen ez diren produktuak edota neurrigabeko bilgarria dutenak. Gauza berrerabilgarriak oparitzea bigarren bizitza bat emateko, edo zuk zerorrek egindako gauza originalak oparitzea, edo esperientzia kulturalak edo gastronomikoak oparitzea, edota osasun eta ongizate arlokoak. Herriko merkataritzara oinez joaten bagara, horixe da era arduratsuan kontsumitzea, eta bertako dendarien aholkuak jasotzea, gure bizilagunak baitira, eta beren lanaren bidez, Antsoain suspertzen dute, herri habitagarriagoa eta erosoagoa izan dadin.

Era berean, kontsumo arduratsua da, adibidez, argiak itzaltzea, erabiltzen ez dituzunean, berogailua zentzuz erabiltzea, etxeko isolamenduak hobetzea, energia berriztagarria kontratatzea, Banku Etikoa erabiltzea edo ekonomia sozial edo solidarioko enpresak kontratatzea.

